

2009ko gizarte-txostena



# Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak Euskadin



Asociación de Empresas de Inserción del País Vasco  
Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte

Laguntzaileak:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE GAETAKO SAIA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

**Bilbao**Lan Ekintza

Connection for Social Innovation  
**EUTOKIA**



2009ko gizarte-txostena



## Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak Euskadin



Gizatea  
Asociación de Empresas  
de Inserción del País Vasco  
Gizarteratzeko eta Laneratzeko  
Euskadiko Enpresen Elkartea

2009ko gizarte-txostena  
Gizarteratze-enpresak Euskadin

2010eko abendua

Gizatea

Asociación de Empresas de Inserción del País Vasco  
Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte

Ekain Koben kalea 3, 1.a • 48005 Bilbao

Tel.: 944 160 566 • Faxe: 944 156 319

gizatea@gizatea.net

www.gizatea.net

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Itzulpena: Instituto Labayru

Inprimatzea: Lankopi, S.A.



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0

Dokumentu honek Creative Commons erakundearen lizentzia dauka.

Obra hau libre kopiaitzeko, banatzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aitpatzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarrituta beste obra bat egiten bada, hau bezalako lizentzia eskuratuta baino ezin izango da banatu. Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.eu>



# Aurkibidea

Hitzaurrea	5
Laburpen exekutiboa	7
Aurkezpena	9
Metodologia	11
I. Zer dira gizarteratze-enpresak?	13
Araudi erregulatzaillea	13
Betekizunak	14
Egokitzapen etikoa gizarteratze-enpresetan	16
II. Azalpena	19
Banaketa geografikoa	21
Forma juridikoaren araberako banaketa	23
Antzintasuna eta erregistroa	25
III. Gizarteratzea eta laneratzea	27
Gizarteratze- eta laneratze-enpresen dimentsio soziala eta haien egitekoa	27
Langileen banaketa	29
Distribución de la plantilla	31
Langileen egitura	32
Gizarteratze-prozesuan aritzen diren teknikariak	32
Gizarteratze-lana	35
Gizarteratzeko langileak kontratatze modalitateak	42
Gizarteratzeko langileen lanaldi-mota	42
Gizarteratze-enpresan aritzea	43
Laneratzea	43

IV. Ekonomiari buruzko informazioa	45
Jarduera-sektoreen arabeko banaketa	45
Jarduerak dibertsifikatzea	46
Diru-sarrerren iturriak	50
Urteko fakturazioaren bolumena	51
Laguntza publiko eta pribatuak	52
Bezero-zorroaren osaera	55
Ekonomiaren azterketa	57
V. Gizarteratze-enpresek Herri Administrazioei itzultzen dietena	59
Ondorioak	63



## Hitzaurrea

Lehenik eta behin, Gizateak opa didan abagune hau aprobetxatuko dut hari eskerak emateko herritarren onerako egiten duen ekarpenagatik. Poz handia hartzen dut, beti, Euskadiko gizarte-politikek laguntzako izateaz gain, pertsonak benetan gizarteratzeko eta laneratzeke balio dutela esatean eta nabarmentzean. Euskadiko politikek desberdintasunaren kontra borrokatzen dute; gizarteratzearen alde egiten dute, eta elkartasuna dute oinarri. Euskadiko politikak gizabanakoei begira daude, eta txirotasuna nahiz bazterketaren aurka borrokatzeko bide on eta eraginkor bakarra lana dela jotzen dute, eta iritzi hori hartzen dute abiaburu.

Horixe da, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzaren lehentasunezko helburua, Gizateak bete-betean garatzen duena. Sortu zenetik hiru urte direla, mintzagai dugun erakundeak ongi aski frogatu du gizartearen aldetik eta ekonomikoki arriskutsuak diruditen ekimenek emaitza positiboak ekar ditzaketela, baldin eta uste osoa badugu ekimen horiengan eta konpromiso zintzo eta irmoak oinarritzat hartzen baditugu.

Goretsi beharra dago, baita ere, garai latz hauetan eta krisialdi ekonomiko amaigabe honen baitan sektoreko enpresek enpleguaren alde egin duten apustua. Baldintzarik okerrenetan ere, merkatu normalizatuko enpresek baino hobeto eutsi dio enpleguari Gizatea erakundeak.

Gizarteratze-enpresak enpresa eredu bikaina dira zenbait helburu betetzeko; Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak oso argi du hori. Eredu bikaina dira, hain zuzen ere, gizarteratze aktiboari buruz eta prestakuntzaren nahiz enpleguaren bidez gizarteratzea suspertzeko neurriei buruz finkatutako helburuetako asko betetzeko. Gure egiten ditugu, baita ere, txosten honen ondorioetan erakundeak jaso dituen nahiak. Are gehiago, etorkizunerako itxaropenak hobetzeko erronka hartuko dugu.

Gizarteratze enpresek frogatu egin dute lan-orientabidea erabakigarria izan daitekeela egoera pertsonal konplexuak gainditzeko. Sailak poz handia hartu du horrekin. Horrez gain, bide hori suspertzeko jarduera-ildo berriak ezarri dituzuela ikus-teak gure gogoia piztu du.

Ziur naiz eredu guztietatik elkarlanean eta lankidetzan oinarritutakoek izango dutela etorkizunik onena. Hortaz, Lanbide Enpleguaren Euskal Zerbitzu berriak gizarteratze-enpresen katalogoa erabiliko du. 2011ko urtarrilean martxan jarriko den zerbitzu berri horren bidez, Gobernuak enplegua babestuko du. Horrez gain, Lanbide zerbitzuan, gizarteratze-enpresen zerbitzua eskaintzea aztertu dugu. Horrek esan nahi du Gizatea erakundearekin eskurik esku egingo dugula lan.

Sektorearen aldeko apustua egin eta harekin konpromisoa hartu dugula erakusten du horrek, bai eta –orain artean egin bezalaxe– botere publikoek gizarteratze-enpresak babesteko eta indartzeko aurrerapausoak ematen jarraituko dutela ere. Izan ere, beren ahalegin eta adonari esker, gizarte-enpresek lortu dute pertsona guztiek lana aurkitzeko aukerak areagotu ditzatela.

Zenbait pertsona eguneroko ogia irabazteko gai ez direneko uste okerra ezereztu dute gizarte-enpresek. Hurrengo orrialde hauetan jaso diren datuek argi erakusten dute enpleguaren aldeko estrategiek ez dutela onartzen ez betatutako eremurik ez eta funtsik gabeko aurreiritzirik ere. Egoki kudeatuz gero, gizarte- nahiz diru-ete-kinak sortzen dituen sektoreak jokia ematen du.

Horiek horrela, aipatu berri dugun eredia zabalduko du Eusko Jaurlaritzak, eta Lanbideren bitartez, pertsonen arteko desberdintasunak egoki artatuko ditu enpleguaren alorrean. Izan ere, sortu nahi dugun elkartasunezko Euskadi iraunkor eta lehiakorra min-minean hunkituko du txosten honetan jasotako errealitateak.

Gemma Zabaleta

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailburua

## Laburpen exekutiboa

2009an Gizatea elkarteko bazkide izan diren gizarteratze-enpresei buruzko daturik garrantzitsuenak	
Gizarte-txostenean parte hartu duten Gizatea elkarteko gizarteratze-enpresa guztien kopurua.	41 GE
Gizatea elkarteko bazkide diren gizarteratze-enpresen kopurua, Estatuko guztiekin alderatuta.	%21,2
Pertsonen buruzko datuak	
Lanpostuak guztira (2009. urteko batez bestekoa).	606 lanpostu
Gizarteratze-alorreko langileak (2009. urteko batez bestekoa) <sup>1</sup> .	379 langile
Lanaldi osokoen besteko gizarteratze-lanpostuak.	365 lanpostu
2009an gizarteratze-enpresetan aritu diren gizarteratze-langile guztien kopurua.	611 langile
Ibilbidea amaitzean, lan-merkatuan sartzen diren pertsonen ehunekoa.	%75
Ekonomiari buruzko zenbait datu	
Diru-sarrerak, guztira.	23.594.489 €
Fakturazioa, guztira.	16.844.254 €
Ustiatze diru-sarretatik diru-laguntza publikoen ehunekoa.	%27,5
Soldaten eta lansarien kostuak.	7.858.870 €
Enpresaren konturako Gizarte Segurantzaren kostuak.	2.349.362 €
Sortutako Balio Erantsi Gordina.	14.171.166 €
Gizarteratze-enpresek Herri Administrazioei itzultzen dieten zenbatekoa	
Herri Administrazioei itzulitakoa, Gizarte Segurantzaren, gertakizun arrunten, eta BEZaren bidez.	10.272 € gizarteratze-plaza bakoitzeko

<sup>1</sup> Gizarteratze-lanpostuak eta -langileak bereizi ditugu: gizarteratze-plaza edo -lanpostu lanaldi osoko lan-jardunaldiak esango diegu; gizarteratze-langileak, ordea, biak izan ditzakete, lanaldi osoko eta partzialak jardunaldiak.

**Lurraldeen araberako parte-hartzea.** Bizkaian daude gizarteratze-enpresa gehienak (28 enpresa, guztien %68). Araban 8 enpresa daude (%20) eta 5 Gipuzkoan (%12).

**Lan-munduan sartzea.** 2009an, 606 langile aritu ziren, guztira, 41 gizarteratze-enpresetan<sup>2</sup>. Langile horietako 379 gizarteratze-prozesuko pertsonak izan dira. Enpresa bakoitzean, batez beste, 15 langile aritu dira.

Lanaldi osoko 365 gizarteratze-lanpostu izan zituzten GEk. Kopuru hori 2008koa baino handiagoa da 341 gizarteratze-lanpostutan, hau da, %7 hazi da.

Pertsonen gizarteratze-mailari dagokionez, gizarteratzeko eta laneratzeko programa amaitu dutenen %75ek lana aurkitu du.

**Askotariko sektoreak.** 34 GE (%82,9) zerbitzuen sektorekoak dira; 3 (%7,3) industriaren sektorekoak; eta 4 (%9,8) eraikuntzaren sektorekoak. Langileek, besteak beste, era honetako jarduerak egiten dituzte: birziklatzea eta berrerabiltzea, merkataritza, ostalaritza eta elikagaiak, arte grafikoak, mezularitza, eta abar.

**Fakturazioa eta diru-laguntza publikoak.** 2009an, guztira 16.844.254 euro fakturatu zituzten aztergai ditugun 41 gizarteratze-enpresek (2008an baino %10,9 gehiago).

2009an aztertutako gizarteratze-enpresek, batez beste, 410.835,46 euro fakturatu zituzten (gizarteratze-erakundeen Estatuko batez bestekoaren gainetik dago zerbateko hori, Estatuko batez bestekoa 398.928 eurokoa izan baitzen).

Diru-sarrereren iturriari dagokionez, gizarteratze-enpresen diru-sarrereren %27,4 (hots, 6.433.066 euro) diru-laguntza publikoa izan da. Gainerakoan, zerbitzuen eta produktuen salmentatik dator gizarteratze-enpresen diru-sarrereren %71,4. Ehuneko horrek erakusten du, beraz, enpresa txiki eta ertain diren aldetik, autonomoak direla mintzagai ditugun enpresak, eta merkatuan parte hartzen dutela.

**Herri administrazioei dirua itzultzea.** Gizarte Segurantzaren, gertakizun arrunten, eta BEZaren bidez, 10.272 euro itzultzen dizkiete langile bakoitzeko gizarteratze-enpresek Herri Administrazioei. Beraz, kontuan hartzen badugu gizarteratze-lanpostu bakoitzeko 17.154 euroko diru-laguntza ematen dietela Herri Administrazioek gizarteratze-enpresei, gizarteratze-langile baten benetako kostua 6.882 eurokoa da.

---

<sup>2</sup> Batez besteko hori kalkulatzeko, gehitu egin ditugu 2009. urtean 41 gizarteratze-enpresetako langileen guztizko batez bestekoetatik lanaldi osokoari dagozkionak.



## Aurkezpena

Gizatea Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarteko bazkide diren enpresa guztien lehenengo gizarte-txostena duzue hau.

Hainbat helburu betetzeko eta hainbat arrazoiengatik egin dugu agiri hau:

- Gizarteari informazioa emateko, gaur eguneko egoeran gizartearen eta ekonomiaren alorrean gizarteratze-enpresek egiten duten lanari buruz. Hortaz, herritarrei informazioa emateko eta herritarrak gai honekiko sentikor bihurtzeko baliagarri izan behar da agiri hau.
- Komunikazio-tresna izatea Herri Administrazioentzat, enpresentzat, gizarte-erakundeentzat, hedabideentzat eta finantza-erakundeentzat.
- Irudi bat edukitzea, Gizatea erakundeko bazkide diren 41 gizarteratze-enpresen egungo egoera ekonomiko eta sozialari buruz. Horri esker, gizarteratze-enpresen taldeak bere burua ebaluatu ahal izango du, eta indargunetak nahiz erronkak ezagutu.

Agiri honen bidez, beraz, ekonomiaren eta enpresaren alorrean nahiz gizartearen alorrean gizarteratze- eta laneratze-enpresek egiten duten lanaren berri eman nahi diegu gizarteari eta erakunde publiko zein pribatuei.

Gizatea elkarteko bazkide diren 41 gizarteratze-enpresei buruzko informazioa eta horien analisisa bildu dugu txosten honetan. EAEn, guztira, 47 gizarteratze-enpresa daude erregistraturik gaur egun<sup>3</sup>.

Azkenik, gizarteratze-enpresak arautzen dituen Estatuko legeen arabera<sup>4</sup>, gizarte-enpresek, beste agiri batzuen artean, enpresaren jardueraren balantze soziala aur-

<sup>3</sup> Eusko Jaurlaritzaren Gizarteratze Enpresen Erregistroko datuak, 2010/12/01era.

keztu beharko dute urtero. Balantze horren barruan izango dira: txosten ekonomiko eta soziala, lan-merkatu arruntean izandako laneratze-maila eta plantillaren osaera, egindako laneratze-jarduerei buruzko informazioa, eta hurrengo ekitaldirako aurreikuspenak. 41 gizarteratze-enpresen txosten bateratu hau egiteko, erakunde bakoitzeko balantze sozialak hartu ditugu oinarri. Agiri honetan, bidenabar, txostenaren emaitzarik azpimarragarrienak jaso ditugu.

Horien guztien bidez, Gizateako bazkide diren gizarteratze-enpresen lanaren berri izango dugu, bai eta Euskadin gizarte- nahiz elkartasunezko ekonomia sustatzearen alde enpresa horiek egindako lanaren berri ere.

---

<sup>4</sup> Gizarteratze Enpresen Araubidea Ezartzen duen abenduaren 13ko 22/2007 Legeko 5. artikulua. BOE, 299. zk.



# Metodologia

Gaiari buruz eztabaidatu ondoren, espainiar Estatuko gizarteratze-enpresen elkarte guztiek osatutako eta Federación de Asociaciones Empresariales de Empresas de Inserción (FAEDEI) federazioak koordinatutako lantaldeak hainbat adierazle adostu zituen. Txosten hau egiteko, beraz, lantalde horrek adostutako zenbakizko adierazle alderagarriak hartu ditugu oinarri. Hau da, metodologia kuantitatiboaz baliatu gara.

Adierazleak hautatu ondoren, horiek orri batean jaso eta Gizatea elkarteko gizarteratze-enpresetara bidali genituen. Enpresek, orduan, adierazleen orria bete zuten eta elkartera bueltan bidali, elkarteak datuok aztertu eta interpretatu zitzaizkien.

Esan gabe doa 2009ko Estatuko gizarte-txostena egiteko erabilitako orri berbera erabili dugula guk ere Gizateako bazkide diren Euskadiko gizarteratze-enpresen tokiko analisiari buruzko txosten hau egiteko.

The image shows a web form titled "MEMORIA SOCIAL 2009" for "Empresas Inserción España". The form is organized into several sections with input fields:

- Header:** Includes the FAEDEI logo and the title "MEMORIA SOCIAL 2009. Empresas Inserción España".
- Company Information:** Fields for "Nombre Social", "Forma Jurídica", "Sector Social (Bare enkuadrado)", "Número", "Cód Postal", and "Comunidad Autónoma".
- Contact Information:** Fields for "Teléfono", "Fax", "Email", and "Web".
- Activity Details:** Fields for "Año inicio Actividad", "Fecha Registro (definición)", and "Nº Registro EI".
- Participation:** Fields for "Cantidad Promovidos" and "Participación (en %)".
- Footer:** Three orange buttons labeled "Reservar comentario", "Eliminar comentario", and "Borrar comentario".

Orri edo txantilo horretan, gizarteratze-enpresa bakoitzari buruzko urteko datuak jaso dira, ondoko bost atal hauetan banaturik:

- Datu orokorrak.
- Informazio ekonomikoa.
- Finantziarioa.
- Gizarteratzeari buruzko datuak.
- Gizarte-erantzukizuna.

Orri horren bidez, gizarteratze-enpresei buruzko informazio guztia jaso dugu. Ondoren, informazio hori kalkulu-orri batera irauli dugu, agregatuak zehazteko, alde-raketak egiteko eta dagozkion grafikoak osatu ahal izateko.

Gizarte-txostena egiteko prozesua, beraz, hiru fase hauetan bana dezakegu:

- Datuak biltzea, berrikustea, iraultzea eta aztertzea.
- Agregatutako datuekin txostena osatzea.
- Txostena editatzea eta zuzenketak egitea.

Azkenik, egiturari dagokionez, informazioa biltzeko orriak zenbat sekzio eduki, hainbat kapitulutan banatuta dago gizarte-txostena.

# I. Zer dira gizarteratze-enpresak?

Gizarteratze-enpresak ondasunak produzitu edo zerbitzuak eskaintzen dituzten egiturak dira. Gizarte-bazterketa pairatzen duten taldeak lan-merkatuan sartzea da haien xedea. Helburu horri helduz, ikaste-prozesu egokia garatzen dute ondoko alderdi hauek lantzeko: gizarte- nahiz lan-gaitasunak, oinarrizko prestakuntza, lanerako prestakuntza eta merkatuaren ezagutza. Alderdi horiek guztiak landuta, gizarte-bazterketa pairatzen dutenek aukera handiagoak izan ditzakete lana aurkitzeko.<sup>5</sup>

## Araudi erregulatzailea

### A. Estatuko arauak

- Abenduaren 13ko 44/2007 Legea, Gizarteratze Enpresen Araubidea Ezartzen duena.
- Enplegua Sustatzeari buruzko abenduaren 30eko 27/2009 Legeko Hamabigarren Xedapen Gehigarria, gizarteratze-enpresen araubidea aldatzeari buruzkoa.
- 49/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 22koa, Lan eta Immigrazio Ministerioaren gizarteratze-enpresen erregistro administratiboa sortzen duena.

<sup>5</sup> 182/2008 DEKRETUA, azaroaren 11koa, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duena, eta horietan sartzeko prozedura nahiz horien erregistroa ezartzen dituen. 2008/11/24ko EHAA.

## B. Autonomia Erkidegoko Arauak

- D- 182/2008 Dekretua, azaroaren 11koa, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duena, eta horietan sartzeko prozedura nahiz horiek erregistratzea ezartzen duena.
- 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratze-ari buruzkoa.
- 1/2000 Dekretua, urtarrilaren 11koa, gizarteratze-hitzarmenak arautzen dituena.
- 2009ko maiatzaren 4ko Agindua, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuarena. Haren bidez, gizarteratze-enpresak sortzeko eta mantentzeko diru-laguntzak arautzen dira.

## Betekizunak

Kalifikazioa lortzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte enpresek:

- a. Merkataritzako sozietatea edo gizarte-ekonomiako sozietatea eratzea.
- b. Ondasunak produzitzeko edo zerbitzuak eskaintzeko legezko jarduera ekonomikoa egitea, merkatuko edozein sektoretan.
- c. Gizarte-xedeaz bestelako jarduerarik ez egitea.
- d. Lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea helburu nagusitzat izatea.
- e. Bere nortasun juridikoari dagokion erregistroan egoki inskribaturik egotea.
- f. Erakunde sustatzaile batek sustatzea eta hura enpresako partaide izatea. Merkataritzako sozietateen kasuan, partaidetza hori kapital sozialaren %51ren bestekoa izan beharko da gutxienez. Sozietate kooperatibo edo lan-sozietateen kasuan, ordea, bazkide laguntzaileei edota bazkideei aplikatu beharreko legeetan zehaztutako muga maximoen bestekoa izan beharko da partaidetza hori.
- g. Beren xede sozialaz bestelako jarduera ekonomikoren batekin loturik ez egotea haien balantzeak, galera eta irabazien kontuak eta ondarea.
- h. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak ordainduta edukitzea, eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin edo haren Erakunde Autonomiadunekin zorretan ez egotea kalifikazioa eskatzeko unean.
- i. Bidegabeko kaleratzearen bidez lanpostu bat bera ere amortizatu ez izana kalifikazioa eskatu aurreko urtean.

Alde horretatik, gizarteratze-enpresek gizarteratze-prozesuan diren langileen ehuneko jakin bat izan behar dute urtero, kalifikazioa jaso dutenetik, edozein eratako kontratazio-modalitatetan. Jardueraren lehenengo hiru urteetan, enpresa horietako langileen %30 gizarteratze-langile izan behar dira; eta, laugarren urtetik aurrera, langileen %50. Batera ala bestera izan, gizarteratzeko bi langile izan beharko dituzte gutxienez<sup>6</sup>.

### Zer da Gizatea?

Gizatea, Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte, 2007ko azaroan sortu zen. Hiru helburu nagusi dauzka: enpresen arteko lan-kidetza sustatzea; sektorea hobetzen eta indartzen laguntzea; eta gizarteraren eta erakunde publikoen artean artekari lanak egitea.

Gizatea izena hiru euskal hitzez osaturik dago: *giza*, *gizartea* eta *atea*. Gizarteratze-enpresek gizarteratzearen atea zabaltzen dute, eta izen horren bidez, haien egitekoa nabarmendu nahi izan dugu. Gizarteratze- eta laneratzeko-prozesu horretan, bidenabar, pertsonak dira protagonista.

Ziur gaude taldean arituz gero are eragin handiagoa izango dugula gizarte osoaren gain eta, bereziki, gizarteratzearen eta laneratzekoaren gain. Horrengatik sustatzen du Gizateak sare-lana elkarteko kide diren gizarteratze-enpresa guztien artean, FAEDElko gizarteratze-enpresen erakundeekin, eta elkartasun-ekonomiaren arloan lanean aritzen diren beste sare batzuekin (hala REAS Euskadirekin, nola banku etikoko FIARE proiektuekin).

<sup>6</sup> Gizarteratze Enpresen Araubidea Ezartzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legeko 5. artikulua.

## Gizarteratze-enpresen egokitzapen etikoa

2009an, Gizatea elkartearen eta elkarte horretako kide diren gizarteratze-enpresen Etika Kodea argitaratu zen. Etika Kodea hiru ataletan banaturik dago –arduramailla bakoitzeko atal bat–: Gizatea elkarte, erakunde sustatzaileak eta gizarteratze-enpresak.

Jarraian, gizarteratze-enpresei buruzko ataleko hainbat artikuluko jaso ditugu, interesgarriak direla baiteritzogu.

### Kalitatea

Erantzukizun printzipioaren arabera, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek zerbitzuak egoki kudeatuko dituzte, efizientzia eta kalitate irizpideak aplikatuz, azken hori beren eginkizunaren garapenarekin lotutako eskakizun bat bailitzan.

### Parte-hartzea

Gizarteratzeko plazak betetzen dituzten langileek lanean beraien laneratzeko-prozesuko kolaboratzailetzat eta arduraduntzat hartuak izateko eskubidea erabiliko dute, elkar laguntzeko jardueretan parte hartuz.

### Gardentasuna

Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek, gerentziaren bitartez, kudeaketa gardena eta zintzoa bermatuko diete kontratatutako langileei, baita beraien eginkizunarekiko kalitatezkoa eta koherentea ere.

### Irabazi asmorik eza

Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen ezaugarria izango da beren helburuak lortzeko erabiltzen dituzten bitarteko guztietan funtzionaltasun eta ekonomia irizpideak erabiltzen dituztela.

Hornitzaileak aukeratzeko gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen edo Gizatearen printzipioekin eta balioekin bat datozen erakundearen aldeko diskriminazio positiboa egingo da.

### Erantzukidetasuna

Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetako arduradunek gizarteratze-prozesuetan dauden pertsonen gaitasunak bultzatuko dituen ingurune bat lortzera bideratutako ekintzak babestuko dituzte, haien garapenean laguntzeko lanpostu bat beteta.

Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak prozesu horietan dauden pertsona guz-tientzat irekita egongo dira, batez ere, zirkunstantzia pertsonalak edo bestelako-ak tarteko, gizarte egoera larrienean daudenentzat.

#### Aukera-berdintasuna

Gerentziak gizarteratzeko eta laneratzeko enpresan lan egiten duten profesio-nalen intimitatea eta dibertsitatea errespetatu beharko ditu. Era berean, tratua errespetuzkoa izango da, bai pertsonarekiko berarekiko, bai egiten duten lanare-kiko, eta esku artean dituen datuen konfidentzialtasuna bermatu beharko du.

#### Genero-berdintasuna

Familia eta prestakuntza-lana bateratu ahal izateko neurriak ezartzea ahalbide-tuko du gerentziak.

#### Lankidetzatza

Kudeaketaren ardura duten pertsonak Gizatearen sare-lana bultzatuko dute beste erakunde batzuekin, baita administrazioarekin ere.

#### Pertsonalizazioa

Laguntza-prozesuak prozesu horien hartzaileak diren pertsonen autonomiarik handiena lortzera bideratuta egon behar dira, eta haien parte-hartzea bultzatu behar dute, mendekotasun egoerak sortzea edo egotea eragozteko.

#### Bideragarritasuna

Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetako kudeaketa-organo gorenei dagokie proiektu serio, ekonomikoki bideragarri eta iraunkorra eta ongi kudeatutakoa sortzea, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresaren jarduerak denboran egonkor-tu ahal izateko.

#### Ingurunearekiko konpromisoa

Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetako arduradunek gizarteratze-prozesue-tan dauden pertsonen eskubideak onartzen direla zainduko dute, baita pertsona horiek gure gizarte ingurunean parte hartzen dutela eta gizarte-oztopoak gain-ditzen direla ere.






## II. Azalpena

Ondoko gizarteratze-enpresa hauen datuak erabili ditugu gizarte-txostena egiteko:


Gizarteratze-Enpresa	Erakunde sustatzailea	Jardunean hasi zireneko urtea
ALKAR BIZIZ, S.L.	Lanberri Gazte Enplegua Elkartea	2004
AMAYADIGITAL, S.L.	Euskadiko Gizarteratze Institutua (IRSE) - Araba	2005
AMUITZ BERRIKUNTZAK, S.L.	Erroak Elkartea-Sartu Donostia	2001
AMUITZ MARGOTU BERRIA, S.L.U.	Erroak Elkartea-Sartu Donostia	2004
BEREZI 99 GARBIKETAK-LOREZAINZA, S.L.	Giltza Fundazioa	2008
BERZIKLATU, S.L.	Emaús Bilbao GEKS, Rezikleta GEKS, eta Garbiker BFA	2007
BIDEBARRI ENPLEGU ZENTRUA, S.L.	Caritas eta Oñatiko Udala	1996
BILBAO SERVICIOS DE HOSTELERIA, S.L.	Peñascal Fundazioa	2005
BILEKOMEN, S.L.	Gaztaroa Elkartea-Sartu Bilbao eta Inlan Fundazioa	1998
EKIBER, S. COOP.	Rezikleta KS eta Koopera KS	2004
EKORREPARA S. COOP.	Caritas	2007
ELKAR PROTEO S. COOP. DE INICIATIVA SOCIAL	Emaús Bilbao GEKS	1998
EMAÚS BIDASOA, S.L.U.	Emaus Gizarte Fundazioa	1998
EMAÚS COMERCIO JUSTO, S.L.	Emaus Gizarte Fundazioa	2004
EMAÚS EZKERRALDEA S.L.U.	Emaús Bilbao GEKS	2004
EMAÚS GETXO LOGISTICA, S.L.	Emaús Bilbao GEKS	2008
ERAKUS-GOIZTIRI, S.L.	Goiztiri Elkartea	2005
EUSKAL POSTAL RED, S.L.	Gaztaroa Elkartea-Sartu Bilbao	2007
EUSKARRI, S. COOP. DE INICIATIVA SOCIAL	Aurrerantz Koop.	2002

GARBINGURU SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES, S.L.U.	Euskadiko Gizarteratze Institutua (IRSE) - Araba	2003
GIZARLINE, TELECOMUNICACIÓN COMUNITARIA, S.L.	Euskadiko Gizarteratze Institutua (IRSE) - Araba	2004
GOILURRA, S.L.	Goiztiri Elkarte	1995
IKATZBIZI, S.L.	Beti Gizartean Fundazioa	2002
ITURRITEK, S.L.	Peñascal Fundazioa	2005
IZARZA, S.L.	Peñascal Fundazioa	2005
JANTZIPREST, S.L.U.	Aldauri Fundazioa	2006
KAIALURKO, S.L.	Emaús Bilbao GEKS	2005
KEIMA ANIMAZIOA, S.L.	Gaztaroa Elkarte-Sartu Bilbao	2000
KIDE EMAUS, S.L.	Emaús Bilbao GEKS	2007
KUPELAN KENTUCKY, S. COOP.	Aurkilan Elkarte	2006
LIBURKI, S.L.L.	Bizitegi Elkarte	2002
LOGICART, S. COOP.	Aurkilan Elkarte	2005
MEDRANO OSTALARITZA, S.L.	Bagabiltza Fundazioa	2006
OR KONPON TABERNA, S.L.	Peñascal Fundazioa	2007
SERVICIOS GENERALES INTEGRADOS EFICIENT, S.L.	Integrando Fundazioa	2005
SOKAIRE SERVICIOS DE LIMPIEZA, S.L.	Gaztaroa Elkarte-Sartu Bilbao	2004
SUSPERTU, S.L.	Suspergintza Elkarte eta Harribide Fundazioa	2006
TINKO GARBIKETAK, S.L.	Beti Gizartean Fundazioa	2003
TXUKUNBERRI OSOKO ZERBITZUAK, S.L.	Zabaltzen Elkarte-Sartu Durango	2004
ZABALTEGI JUDIZMENDI, S.L.U.	Euskadiko Gizarteratze Institutua (IRSE) - Araba	2005
ZURTEK, S.L.	Peñascal Fundazioa	2005
Gizarteratze-Enpresak Guztira		41

2009an, EAEko gizarteratze-enpresen %89,1 (hots, 41 GE) Gizateako bazkide ziren; eta %10,9 (hots, 6 GE), ez.



## Banaketa Geografikoa



Grafikoan ikus daitekeen moduan, 28 GE (bazkideen %68) Bizkaian daude. Araban 8 GE daude (bazkideen %20) eta Gipuzkoan, aldiz, 5 (bazkideen %12).



Hiriburuei dagokienez, Bilbon gizarteratze-enpresen %48,8 daude (hots, 20 GE), Donostian %7,3 (3 GE), eta Gasteizen, %14,6 (6 GE).

Euskadiko Enpresen Banaketa 2009		
	Enpresa arruntak <sup>7</sup>	Gizarteratze enpresak
Araban	%12,3	%20
Bizkaian,	%50,6	%68
Gipuzkoan	%34,8	%12
Estatuko beste eremuetan	%2,3	-
Guztira	%100	%100


Bizkaia da gizarteratze-enpresa nahiz enpresa arrunt gehien dituen lurraldea.

Gipuzkoan, berriz, gizarteratze-enpresen ehuneko enpresa arruntena baino txikiagoa da.

<sup>7</sup> Etxe honetan egindako taula da hori, EUSTATen txosten hau oinarri harturik: Enpresak eta beren enplegua Euskal AEn, jardura-atalaren (A21) eta egoitza sozialaren arabera. 2009-I-1. 2010eko martxoa.

## Nortasun juridikoaren arabera banaketa

Gizarteratze-enpresa gehienak (41etik 31) sozietate mugatuak dira. Gainerakoan, 6 kooperatiba eta 4 lan-sozietate daude.




### Erakunde sustatzaileei dagokienez...

Erakunde sustatzaileen ezaugarriak ondoko hauek dira: irabazi asmorik gabeko erakundeak dira –zuzenbide publikoko erakundeak, elkarteak eta fundazioak multzo horren barruan sartzen direlarik–; bereziki, pertsona txiroak gizarteratzea dute xede; gizarteratze-enpresak eratzea sustatzen dute horietan parte hartzearen bidez –%51ko partaidetza izan behar dute gutxienez enpresan–; eta gizarte-laguntzako neurriak eskainiko dituztela bermatu behar dute.

Kooperatiba-sozietateen eta lan-sozietateen kasuan, ordea, bazkide laguntzaileei edota bazkideei aplikatu beharreko legeetan zehaztutako muga maximoen bestekoa izan beharko da partaidetza hori.


Aztergai ditugun 41 gizarteratze-enpresetatik: 36, erakunde sustatzaile (ES) bakar batek sustatzen ditu; badira 4 GE bi erakundek osatutako partzuergoak sustatzen dituztenak; eta hiru erakundek sustatutako gizarteratze-enpresa 1 dago.

### Gizarteratze-enpresak, erakunde sustatzaileen (ES) kopuruaren arabera



Erakunde sustatzaileen nortasun juridikoari dagokionez, gizarteratze-enpresen sustatzaile gehienek (%77) elkarte (sustatzaileen %42) eta fundazio (sustatzaileen %35) nortasuna dute. Horien ondotik, garrantzi hurrenkeran, kooperatibak (%15) eta erakunde publikoak daude.


### Banaketa, GEn erakunde sustatzaileen arabera




## Antzinasuna eta erregistroa

Eusko Jaurlaritzak Laneratzeko Enpresen Erregistroa sortu zuen 2001. urtean. Ordutik daude aintzatetsirik gizarteratze-erakundeak EAEn. 2002. urtetik aurrera, beraz, hizpide ditugun enpresak sortzeko eta mantentzeko diru-laguntzen programa martxan jarri zen<sup>8</sup>.

Besteak beste, arrazoi horregatik eratu eta erregistratu ziren 1995 eta 2004. urteen artean gizarteratze-enpresa gehienak. 2004. urtetik aurrera, berriz, gizarteratze-enpresen kopuruak iraunkorki egin du gora, 20 GE eratu direlarik.



Txosten honetan aztertutako gizarteratze-enpresa guztiak Euskal Autonomia Erkidegoan erregistraturik daude. Beraren eskumenen eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sustapenerako zenbait neurri eta diru-laguntzen hainbat programa eskaintzen ditu. Horietan parte hartu ahal izateko, gizarteratze-enpresek erregistroan inskribatuta egon behar dute.



<sup>8</sup> 305/2000 Dekretua, abenduaren 26koa, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzeko, enpresotan sartzeko prozedura ezartzeko eta laneratzeko enpresen erregistroa sortzeko dena. 2002ko abenduaren 11ko Agindua, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuarena, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautzen dituen.

### Gizarteratze-enpresak eta kontsumo arduratsua

Lanean ari, produzitu eta merkaturatzen duten ingurumenarekiko konpromisoa hartzen dute gizarteratze-enpresek. Ingurumen-iraunkortasuna zaindu behar dute gizarteratze-enpresek, bai barne-funtzionamenduan, baita enpresatik kanpo ere (ingurumena zaintzea sustatzen duen proiektuak babestearen eta horiekin konpromisoa hartzearen bidez).

Hori dela eta, enpresaren barruan nahiz komunitatetik kanpo kontsumo arduratsua sustatzen duten neurriek eta ohiturek garrantzi handia daukate. Gaur egun, ingurumena zaintzearekin lotura duten kontsumo arduratsuaren alorreko neurriak garatzen dituzte gizarteratze-enpresek.

#### Kontsumo arduratsua eta ingurumena

1. Ba al du gizarteratze-enpresak kontsumo arduratsuaren alorreko neurririk?	22 bai %54 19 ez %46
2. Ba al du gizarteratze-enpresak energia aurrezteko neurririk?	26 bai %63 15 ez %37
3. Ba al du gizarteratze-enpresak produktuak birziklatzeko neurririk?	30 bai %73 11 ez %27

### Gizarteratze-enpresak eta kalitate-konpromisoa

Gizarteratze-enpresetatik 9k kalitatezko kudeaketaren ziurtagiria daukate, eta 7 gizarteratze-enpresa kalitate-ziurtagiria lortzeko bidean dira.

1. Ba al du gizarteratze-enpresak kalitatezko kudeaketaren ziurtagiririk?	9 bai %22 32 ez %78
2. Ba al da gizarteratze-enpresa kalitate-ziurtagiria 7 bai lortzeko bidean?	7 bai %17 34 ez %83

### III. Gizarteratzea eta laneratzea

#### Gizarteratze- eta laneratze-enpresen dimentsio soziala eta haien egitekoa

Gizarte-bazterketa pairatzen duten edota hura pairatzeko arriskuan diren emakume eta gizonezkoak laneratzeko dispositiboa dira gizarteratze-enpresak.

Horixe da haien zerizana. Gizarteratze-enpresek 2009an egindako lanaren berri emateko asmoz, beraz, gizarteratze-enpresen egiteko nagusiaren emaitzarik azpimarragarrienak aztertuko ditugu atal honetan.

#### Gizarteratze eta laneratze ibilbidea

Gizarteratze pertsonentzako gizarteratze- eta laneratze-ibilbideak dituzte gizarteratze-enpresek.

Bestetik, laguntzarako teknikariek garatu eta erabiltzen dituzten tresnetako bat ondoko hau da: FERNÁNDEZ A., GALARRETA J., eta MARTÍNEZ N.; Laneratze enpresetako laguntzarako eskuliburua: prozesua eta tresnak. Praktikatik eginiko proposamena. Lamegi. Bilbao, 2007.

Gizarteratze-enpresekin bat etorri hainbat irizpide ezarri dituzte Gizarte Zerbitzuek nahiz Enplegu Zerbitzu Publikoek. Irizpide horien arabera, gizarteratze-enpresek gizarteratze eta laneratze zenbait ibilbide aplikatzen dituzte. Horrela, lan-merkatuan sartu aurretik, kontratatutako pertsonak ibilbide horiek onartu beharko ditu gizarteratze-hitzarmen baten bidez. Hitzarmenean, bidenabar, esku-hartze eta laguntza-neurri beharrezkoak zehaztuko dira.

## Laguntza esku-hartze eredu gisa


Gizarteratze-enpresetako teknikariek laguntzarako ikuspegia erreferentziatzen hartzen dute. Beraz, ondoko ezaugarri hauek izan behar dituzte diseinatutako laguntza-tresnek:

- ➡ Pertsonaren ikuspuntuarekiko sentikorrak izatea, eta haien itxaropen eta nahiak aintzat hartzea.
- ➡ Guztiontzako ulergarriak izatea, hau da, hizkera sinplea erabiltzea eta beharrezkoak ez diren hitz teknikoak saihestea.
- ➡ Prozesu erakoak izatea, eta informazio-bilketa progresiboa ahalbidetzea.
- ➡ Gaur egungo egoerara bideratuta egotea.
- ➡ Ekologikoak izatea, baliabideei, laguntzei eta eskuragarri dauden programei dagokienez.

Sarbidea	Harrera eta laneratzea	Lanbide-proiektua eguneratzea	Lan-jarduna eta enplegarritasuna hobetzea	Trantsizioa
Aldez aurretiko azalpenak Lan- eskaintza Sarbide- eskaera Aukeraketa	Harrera Lehenengo urratsak enpresan	Hasierako ebaluazioa Planifikazioa	Enplegarritasuna hobetzea Lan-jarduna Gizarte-laguntza Teknikarien arteko koordinazioa	Baldintzak sortzea Plana egitea Bilaketa aktiboa Enplegua Enpresatik ateratzea Jarraipena eta laguntza

## Gizarteratze-enpresetako langileak

2009an, guztira 606 langile aritu ziren batez beste gizarteratze-enpresetan<sup>9</sup>. Langileen kopuru horren barruan biak sartzen dira: gizarteratzeko langileak eta gizarteratzeko langile ez direnak.



Kontuan izanik guztira 41 gizarteratze-enpresa izan direla, enpresako 15 langile aritu dira batez beste.


606 langile horietatik, %62,5 emakumezkoak izan dira, eta %37,5, gizonezkoak.

EUSTATen datuen arabera<sup>10</sup>, 16 urte edo gehiagoko 787.600 pertsonak lana eta soldata izan zuten 2009an. Biztanleria landun horren %46,03 emakumezkoak izan ziren, eta %53,97, gizonezkoak.

<sup>9</sup> Batez besteko hori kalkulatzeko, gehitu egin ditugu 2009. urtean 41 gizarteratze-enpresetako langileen guztizko batez bestekoetatik lanaldi osokoari dagozkionak.


<sup>10</sup> EUSTATen ondoko taula honetatik hartu dugu informazio hori: 16 urteko eta hortik gorako soldatako biztanleria okupatua (milakoetan), kontratu motaren eta sexuaren arabera. Euskadi 2009.

### 2008-2009ko bilakaera. GEtan lan egiten zuten pertsonen guztizko plantilla, generoaren arabera



Langileen kopuruari dagokionez, 2008 eta 2009. urteen artean, %7,6 hazi da langileen kopurua, hau da, 2008an baino 43 langile gehiago izan dira 2009an guztira aztergai ditugun gizarteratze-enpresetan. Langile berri horietatik 19 gizonetzkoak dira, eta 24, berriz, emakumezkoak.

## Langileen Banaketa



Gizarteratze-programetako langile direnak eta ez direnak daude gizarteratze-enpresetan. Hortaz, langileen erdia baino gehiago, hau da, langileen %55,1, gizarteratze-prozesuan dauden langileak dira.

Gizarteratze-Enpresetako Langileak 2009	Gizonak	Emakumeak	Guztira	%
Gizarteratze-prozesuan dauden langileak <sup>11</sup>	143	236	379	55,1
Gizarteratze-prozesuan ez dauden langileak	124	185	309	44,9
Gizarteratze-enpresetako batez besteko osoa	267	421	688	100

Nabarmentzekoa da, baita ere, gizarteratze-enpresetako langileetako asko emakumezkoak direla. Salbuespenak salbuespen –eraikuntzaren sektorea, esaterako–, gizarteratze-lanpostu nahiz gizarteratzeko langileek betetzen ez dituzten lanpostuetako askotan emakumezkoak aritzen dira.

- ⊕ Gizarteratzeko 379 langile aritu dira, batez beste, 2009an.
- ⊕ Gizarteratzeko 611 langile aritu dira guztira 41 gizarteratze-enpresetan.

<sup>11</sup> Kalkulu hori egiteko, lanaldi osoan edo partzialen aritutako gizarteratze-langileen kopurua hartu dugu oinarri.

## Langileen egitura

2009an, batez beste, 688 langile aritu ziren gizarteratze-enpresetan.

Esan gabe doa gizarteratze-enpresak edota erakunde sustatzaileak biek kontratatu ditzaketela gizarteratzearen alorrekoak ez diren langileak.

Taula honetan, gizarteratze-enpresek nahiz erakunde sustatzaileek kontratatutako langileak eta horien funtzioak jaso ditugu:

	Gizarteratze-Enpresa	Gizonak	Emakumeak	Guztira	%
Gizarteratze-prozesuan dauden langileak	Gizarteratze-prozesuan dauden langileak	143	236	379	55,1
	Zuzendariak/Kudeatzaileak	10	9	19	2,8
	Laguntza-Teknikariak	7	18	25	3,6
	Produkzioko edo merkataritzako teknikariak	26	21	47	6,8
Gizarteratze-prozesuan ez dauden langileak	Administrariak	9	11	20	2,9
	Gizarteratze-prozesuan ez dauden langileak	72	126	198	28,8
	<b>Guztira</b>	<b>267</b>	<b>421</b>	<b>688</b>	<b>100</b>
Gizarteratze-prozesuan ez dauden langileak	<b>Erakunde sustatzailea</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Emakumeak</b>	<b>Guztira</b>	<b>%</b>
	Zuzendariak/Kudeatzaileak	10	8	18	26,9
	Laguntza-Teknikariak	9	20	29	43,3
	Produkzioko edo merkataritzako teknikariak	7	0	7	10,4
	Administrariak	4	9	13	19,4
	<b>Guztira</b>	<b>30</b>	<b>37</b>	<b>67</b>	<b>100</b>

## Gizarteratze-prozesuan aritzen diren teknikariak<sup>12</sup>

Gizarteratze-prozesuan parte hartzen eta laguntza eskaintzen duten gizarteratze-enpresako teknikarietarako dagokienez, ezin daiteke horietan buruzko formula bakarra aukeratu, aztergai ditugun enpresek ezaugarri desberdinak baitituzte. Badira zenbait

<sup>12</sup> Iturria: Fernández, A., Galarreta, J. eta Martínez N. (koord. 2007): Laneratzeko enpresetako laguntzarako eskuliburua: prozesua eta tresnak. Praktikatik eginko proposamena. EQUAL LAMEGI proiektua. Bilbao. 29-30 or.

enpresa –antolakuntzaren aldetik– teknikarien funtzioak bereizi dituztenak. Beste batzuetan, aldiz, txikiagoak izanik, langile bakar bat arduratzen da prozesu osoa garatzeaz.

Batera edo bestera izan, enpresen arautegiari eta enpresetako batzuen eskarmen-tuari erreparatuta, bi eratako teknikariak bereiz ditzakegu: ekoizpen-teknikariak eta laguntza-teknikariak.

Bi teknikari horiek hartzen dute parte laguntza-prozesuan. Alde batetik, egindako lana erreferentziatzeko neurria da enpresetan. Horregatik, Produkzio-teknikariak ezinbestekoak dira lan-funtzionamendua egokia izan dadin.


Laguntza etorkizun globalerako proiektatzen denez, askotariko baliabideekin lotura izan behar duenez eta jarduera osagarriak egitea behar duenez, lanbide-profil espezifikoak eta tresna espezifikoak erabiltzea eskatzen du.

Hortaz, mintzagai ditugun laguntzaren bi maila horiek ondo koordinatu behar dira, eta, ondorioz, elkarlanean arituko diren bi langilek garatu behar dituzte.

Laguntza-teknikariak, esaterako, gizarteratze- eta laneratze- ibilbidea nahiz dagozkion laguntza-neurriak koordinatzeaz eta horien jarraipena egiteaz arduratzen dira. Horrela, aztergai ditugun gizarteratze-enpresetako langile guztien %3,6 laguntza-teknikariak dira.

Haien egitekoa gizartegintzako jarduerak programatzea, egikaritzea eta ebaluatzea da, pertsonen beharrak oinarri hartuta diseinatutako ibilbideen barruan, eta ekoizpen-teknikariekin nahiz gizarte- edota lanbide-zerbitzuekin elkarlanean.


### ...(e)k kontratatutako laguntzarako teknikariak



Bildutako informazioaren arabera, laguntzako 54 teknikari kontratatu ziren guztira. Horietatik 29 (%54) erakunde sustatzaileek kontratatu zituzten; eta 25, berriz, (%46) gizarteratze-enpresek.

Ekoizpen teknikariak, bestalde, gizarteratze-enpresen produkzio-alorrean aritzen dira. Gerenteen ikuskaritzapean, zenbait eginbehar koordinatzen eta gauzatzen dituzte, artean: gizarteratze-langileak eta gizarteratzearen alorrekoak ez direnak koordinatu; prestakuntza-beharrak diagnostikatu; prestakuntza-ibilbidea diseinatzeko lagundu; langileak lanposturako trebatu; eta lehen aipatutako ibilbide horren betetze-mailaren jarraipena egin.

## .....(e)k kontratatutako produkzioko teknikariak



Produkzioaren alorreko 54 langile kontratatu ziren guztira. Horietako 7 (%13) erakunde sustatzaileek kontratatu zituzten; eta 47 (%87), berriz, gizarteratze-enpresek.

### Gizarteratze-lana

Gizarte-bazterketa jasaten duten edo baztertuak izateko arriskuan diren pertsonak gizarteratzearen eta laneratzearen alde lan egiten dute gizarteratze-enpresek. Gizarte-talde horiek era askotakoak izan daitezke. Talde horietako batean edo bat baino gehiagotan egon daitezke pertsona horiek. Hurrengoko lauki horretan, bide-nabar, hizpide ditugun gizarte-taldeen definizioak jaso ditugu.

#### Nortzuk dira gizarteratze-enpresen hartzaileak?

Laneratze-enpresen kalifikazioa arautzen duen 182/2008 Dekretuan ezarritakoaren arabera, gizarteratzeko eta laneratzekeko prozesu bat hasteko asmoz laneratzekeko enpresa batean sartu ahal izango dira gizarte-bazterkeriako egoeran dauden, lanik ez duten, Enplegu Zerbitzu Publikoetan erregistratuta dauden eta laneratzekeko hitzarmen bat sinatu duten pertsonak.

Gizarte-talde horien barruan dira:

- Oinarrizko errentaren titularrak, eta errenta horren onuradun diren bizikidetzaren unitateko-kideak.

- b. Honako arrazoi hauengatik errenta jaso ezin duten pertsonak: eskatzen den egoitza izateko edo erroldatua egoteko denbora ez betetzeagatik, edo errenta jasotzeko legez ezarritako gehienezko epea agortu izanagatik.
- c. Hemezortzi urtetik gorako eta hogeita hamarretik beherako gazteak, Adinga-beak Babesteko Erakundeetan izan direnak.
- d. Droga-menpekotasun edo bestelako menpekotasun-arazoak dituzten eta menpekotasun hori gainditzeko edo gizarteratzeko prozesuan dauden pertsonak.
- e. Espetxean dauden pertsonak.
- f. Preso adingabeak, adingabeen zigor-erantzukizuna arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren aplikazio-eremuan daudenak, eta beraien egoeragatik enplegu bat izan dezaketenak.
- g. Lanaren aurreko orientazio- edo prestakuntza-programak egin dituzten edo Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan ibili diren pertsonak, gizarteratzeko eta laneratzeko hitzarmen baten bitartez zehaztuta.

Talde horietan dauden pertsonen bazterketa-egoera Gizarte Zerbitzu Publiko eskudunek ziurtatu beharko dute<sup>13</sup>.

Gizarte-errealitatea zehaztasun osoz deskribatzen ez duten multzoak eta alderaketa subjektiboak egin daitezela saihesteko, atal honetan ez dugu ehunekoen araberako konparaziorik egingo, ez eta gizarte-taldeen arteko bereizketarik ere.

Hala ere, gizarteratze-langile gehienak ondoko gizarte-talde hauetakoak direla esan dezakegu: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzen duten pertsonak; lanaren aurreko orientazio- edo prestakuntza-programak egin dituzten pertsonak; eta beste gizarte-baliabide batzuetan parte hartu dutenak.

2009an gizarteratze-enpresetan aritu ziren langileetatik 226k<sup>14</sup> Diru-sarrerak Bermatzeko Errenten onuradun ziren. Langileen kopuru hori da, hain zuzen ere, 2009ko abendura bitartean Euskadin Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jaso zuten 31.283 pertsona edo bizikidetz-unitateen %0,72.

<sup>13</sup> Azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuko 5. artikulua. Dekretu horren bidez, laneratze enpresen kalifikazioa arautu da, bai eta horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ere. 2008/11/24ko EHAA.

<sup>14</sup> 41 gizarteratze-enpresei galdetu diegu ea gizarte-bazterketako zer taldekoak ziren gizarteratzeko pertsonak. Talde horietako bat, hain zuzen ere, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten pertsonak osatzen dute. Gerta daiteke DBE jasotzen ari den pertsona bera gizarte-bazterketako beste egoera desberdin bat bizitzen egotea.

## Diru-sarrerak bermatzeko errenta<sup>15</sup>

Aldian aldiroko prestazio ekonomikoa da Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta. Haren helburua da, batetik, bizirauteko beharrezkoak diren oinarrizko gastuak eta, bestetik, gizarteratze- edota laneratze-prozesuko gastuak estaltzea. Mintzagai dugun errentak, bidenabar, oinarrizko gastu horiek ordaintzeko nahikoa diru-sarrerarik ez duten bizikidetz-unitateen kideei ematen zaizkie.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) modalitateak ezin zaizkio bata beste-ari gehitu. Modalitate horiek ondoko hauek dira:

1. Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errenta. Laneko errentetik datorren inolako diru-sarrerarik ez daukaten pertsonen zuzenduta dago errenta hori, baldin eta hilero jasotzen dutena ez bada iristen dagokien Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errentaren zenbatekora.
2. Laneko Diru-sarrerak Osatzeko Errenta. Zenbait bizikidetz-unitateren diru-sarreraren maila osatzea du xede errenta horrek. Bizikidetz-unitate horietan, lanetik datozen diru-sarrerak eduki arren, hilero jasotzen dutena ez da iristen bizikidetz-unitateko kideen kopuruaren arabera dagokien Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errentaren zenbatekora.

### Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak:

Ondoko pertsona hauek izango dira:


1. Bizikidetz-unitatea (BU) osatzen dutenak.
2. Eskaera egin baino urtebete lehenagotik EAEko udalerriren batean egiazki bizi direnak eta udalerririk horretako erroldan ageri direnak.
3. Bizirauteko oinarrizko gastuak ordaintzeko nahikoa baliabide ez dutenak.
4. 23 urte baino gehiago dituztenak. Arauan zenbait salbuespen jaso dira.
5. Egoitza-zerbitzu, gizarte-zerbitzu, osasun-zerbitzu, edo gizarte eta osasunaren alorreko zerbitzuren baten erabiltzaile iraunkor ez direnak.
6. Espetxean ez daudenak.
7. Lan egiteagatiko diru-sarrerarik duten pertsonak baina, salbuespenak salbuespen, lanaldi murrizturik edo antzerakorik ez daukatenak.

<sup>15</sup> 147/2010 Dekretua, maiatzaren 25ekoa (2010eko 114. EHA), Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa (dekretu horren aurretik, oinarrizko errenta zeritzon errenta horri).

Baldintzak. Gizarteratze-hitzarmen bat ezarri beharko da. Hartzailleak gizarteratzeke eta laneratzeke tresna izango da hitzarmen hori. Haren edukia, bidenabar, titularrak eta Oinarrizko Gizarte-zerbitzuek adostu eta definituko dute.

2009ko datuak. 2009ko abenduko datuen arabera, 48.489 pertsonak jaso zuten Euskadin Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta. Onuradunen %13,3 (hots, 6.465 pertsona) arabarrak izan ziren, %67,6 (hots, 32.787 pertsona) bizkaitarrak, eta %19,7 (hots, 9.237 pertsona) gipuzkoarrak. Kopuru horri kentzen baldin badiogu pentsio-osagarria jaso zuten pertsonen kopurua (17.206 lagun), Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunak 31.283 pertsona izan direla esan dezakegu.

Gizarteratze-prozesuan zeuden eta DBE jasotzen zuten pertsonak, guztizkoarekin alderatuta; 2006ko abendua



Gizarteratze-prozesuan diren 226 lagunek DBE jaso zuten. Hau da, 2009an –abendura bitartean– Euskadin laguntza hori jaso zuten 31.283 pertsonen %0,72. Zenbateko horren barruan ez dira sartu Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta pentsioen osagarri jasotzen duten 17.206 pertsonak.


## Gizarte-bazterketa

Gizarte-bazterketa errealitate bat da. Errealitate horretan, kanpoko nahiz barruko hainbat faktorek bazterketa-maila ugari sortzen dituzte.

Horrela, lanaren, ekonomiaren, finantzaren, prestakuntzaren, gizartearen, osasunaren, etxebizitzaren alorreko nahiz alor pertsonaleko hainbat faktoreren eraginez, baztertutako gizarte-talde bat edo bazterketa pairatzen duen pertsona bat gizarteratu daiteke, edo alderantziz.

Faktore horien arteko loturaren eta pertsonen edo taldeen gain horiek duten eraginaren arabera, gizarteratze edo gizarte-bazterketako hainbat maila sortuko dira. Hona hemen gizarte-bazterketa sortzen duten faktoreetako batzuk: laneratzeko zailtasunak, enplegua galtzea, langabezian egotea, pobrezia, hezkuntza edota gutxieneko hezkuntza jasotzeko zailtasunak, desegituratutako familia, –migratzaileen kasuan– legezketasuna lortzeko zailtasunak, eta abar<sup>16</sup>.


## Gizarteratze-langileen (GL) urteko batez bestekoa, generoaren arabera, 2009



2009. urtean, gizarteratzeko 379 langile izan zituzten, batez beste, 41 gizarteratze-enpresek. Langile horien %62,3 (hots, 236 langile) emakumezko ziren; eta %37,7 (hots, 143 langile) gizonezko. Enpresa bakoitzean, batez beste, gizarteratzeko 9 langile izan zituzten urtean.

<sup>16</sup> Iturria: SARTU federazioa (2010): Joera sozialak eta gizarteratzea. Euskal Autonomia Erkidegoa.

2009an, gainera, jardunaldi osoko 365 gizarteratze-lanpostu osatu dituzte, batez beste, gizarteratzeko 379 pertsonak. Mintzagai ditugun lanpostuak 341 izan ziren 2008an. Hortaz, horien kopuruak %7 egin du gora 2009an.



Gizarteratze-enpresek gizarteratzeko 365 lanpostu izan zituzten 2009an, 2008an baino %7 gehiago -urte horretan, gizarteratzeko 341 lanpostu izan baitziren-.

## Generoa, gizarteratzearen eta laneratzearen alorrean Familia bateratzea eta diskriminazio positiboa

2009an familia bateratzeko edota diskriminazio positiboaren alorreko neurriak egon edo aplikatu al dituzten galdetu diegu gizarteratze-erakundeei.

Gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna zaintzeko neurriei dagokienez, 18 gizarteratze erakundek baietz erantzun zuten, neurriak badituztela; 23k, aldiz, era horretako neurririk ez dutela adierazi zuten. Gizarteratze-enpresen %44k diskriminazio positiboaren arloko neurriak dituzte, eta horiek egunean-egunean jardunean aplikatzen dituzte.

Familia bateratzeko neurriei dagokienez, 30 gizarteratze-enpresak baietz erantzun zuten, badituztela era horretako neurriak; 13k, aldiz, ez omen dute horrelakorik.

Familia bateratzea eta generoa	Erantzuna	%
1. Ba al du gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna zaintzeko neurririk gizarteratze-enpresak?	18 bai	44
	23 ez	56
2. Ba al du diskriminazio positiboaren alorreko neurririk gizarteratze-enpresak?	18 bai	44
	23 ez	56
3. Gizarteratze-enpresak ba al du familia, lana eta norberaren bitzitza bateratzeko neurririk?	30 bai	70
	13 ez	30

### Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planak

Zer dira berdintasun-planak? Egoeraren diagnostikoa egin ondoren ezartzen diren neurrien multzoa da berdintasun-plana. Horien xedea da, batetik, emakumeen eta gizonen arteko aukera- eta tratu-berdintasuna lortzea enpresan, eta sexu-arrazoiengatiko bereizkeria ezabatzea.

Horrela, Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 40. artikuluan, ezarri egin da emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan eta politiken arloan enpresen egitekoak zein diren.

1. Partaidetza nagusia kapital publikoarena duten enpresek beti, bai eta enplegatutako pertsona-kopuruaren edo beste irizpide batzuen arabera erregelamenduz zehaztuko diren enpresa pribatuek ere, hala enpresa barruan nola kanpoko jardunean, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko neurri zehatzak eta eraginkorrak biltzen dituzten planak edo programak egin behar dituzte.

Hortaz, aukera-berdintasuna eta familia-bateratzea zaintzeko asmoz, hainbat neurri sortu dituzte gizarteratze-enpresek. Besteak beste, berdintasunerako hainbat plan egin dituzte eta zenbait konpromiso hartu.

## Gizarteratzeko langileak kontratatze modalitateak

Kontratu-motari dagokionez, gizarteratze-enpresetako 160 langilek (%40k) obra eta zerbitzuko aldi baterako kontratua izan zuten; 82k (%21k), gizarte-bazterketa-koharidun kontratua; eta 85ek (%21k), enplegua sustatzeko kontratu berria, 44/2007 Legean ezarritakoa.

Zenbait langilek obra eta zerbitzuko aldi baterako kontratua zuten 44/2007 Legea onartu aurretik. Baliteke langile horiek kontratu berbera izaten jarraitzea lege hori onartu ondoren, eta, horregatik, enplegua sustatzeko kontratuaren bidez kontratatutako pertsonen ehunekoa hain txikia izatea.

### Enplegua sustatzeko aldi baterako kontratua, 44/2007 Legea

Gizarteratze-enpresa batean besteren kontura ordaindutako zerbitzuak boluntarioki eskaintzea da era horretako kontratuen xedea. Eginkizun hori, bidenabar, gizarteratze-ibilbide pertsonalizatuaren funtsezko parte da. Kontratuak hamabi hilabeteko iraupena izango du gutxienez, eta hiru urte gehienez ere. Edonola ere, gizarteratze-prozesuaren jarraipena egiteko eskumena duten Gizarte Zerbitzu Publikoek alde aurretik hitzartutako gizarteratze-ibilbidearen barruan horrelakorik adierazi badute, kontratuak lehen aipatutakoa baino iraupen laburragoa izan dezake –sekula ez sei hilabete baino gutxiago–.

## Gizarteratzeko langileen lanaldi-mota

Lanaldi-mota	%
Lanaldi osoa	55,8
Lanaldi partziala	44,2
Guztira	100,0

Gizarteratzeko langileen %55,8 lanaldi osoz aritu ziren; eta gainerako %44,2 lanaldi partzialez.

## Gizarteratze-enpresan aritzea

Gizarteratze-langileak gizarteratze-enpresan aritutako denbora 2009	%
6 hilabete baino gutxiago	17,7
6 eta 12 hilabete artean	24,8
Urte 1 eta 2 urte artean	28,5
2 urte baino gehiago	29,0
Guztira	100,0

Indarreko legeen arabera, gizarteratze-langileak 6 hilabete eta 3 urte bitartean egon daitezke gizarteratze-enpresan. Beraz, gizarteratze-prozesuak prozesu pertsonalatuak direnetik, langileak denbora-tarte desberdinez arituko dira enpresan.

Goiko taula horretan, gizarteratzeko pertsonen egoerari buruzko 2009ko informazioa jaso da. Gizarteratzeko langileen %17,7k sei hilabete baino gutxiago zeramatzan gizarteratze-enpresan; %29k, aldiz, bi urte baino gehiago.

## Laneratzea

Gizarteratze-pertsonen buruzko 2009ko hainbat datu	Kop.	%
Gizarteratze-prozesua amaitu zutenak	288	47,13
Amaitu aurretik, gizarteratze-prozesua bertan behera utzi zutenak	37	6,05
Gizarteratze-prozesuarekin jarraitu zutenak	286	46,80
Guztira	611	100


2009an 611 lagun izan ziren gizarteratze-prozesuan. Horietatik, 288k (%47,13k) prozesua amaitu zuten; 37k (%6,05ek) bertan behera utzi zuten; eta 286k (%46,80k) prozesuarekin jarraitu zuten.

Prozesua amaitu zutenen laneratzea	Kop.	%
Ohiko lan-merkatuan sartu dira	187	65
Gizarteratze-enpresan geratu dira <sup>17</sup>	30	10
Langabezian daude	71	25
Guztira	288	100

Prozesua amaitu zuten 288 lagunetatik, 188k (%65) enpresa arruntetan aurkitu dute lana; 30 (%10) gizarteratze-enpresan geratu dira, gizarteratzearen alorrekoa ez den plaza bat betetzen.

<sup>17</sup> Kasu horretan, enpresako langile bihurtzen da pertsona hori, eta ez du gizarteratze-lanposturik betetzen.

Azkenik, gizarteratze-prozesua amaitu duten pertsonetatik, 71k (%25ek) ez dute lanik aurkitu.



Beraz, gizarteratze-prozesua amaitu dutenen %75ek (hots, 217 lagunek) lana aurkitu du.

Bestetik, laneratutako pertsonak egiten duten lan mota aztertzen badugu, gizon eta emakumeek jarduera desberdinak egiten dituztela antzeman daiteke:

- ☞ Emakumezkoak, batik bat, ondoko sektore hauetan laneratu dira: garbiketa, mantentze-lanak, geriatría, merkataritza, etxe-zerbitzua, teknika espezializatuak eta administrazio-lanak.
- ☞ Gizonezkoak, beren aldetik, era honetako sektoreetan laneratu dira gehienbat: garbiketa eta mantentze-lanak, eraikuntza, lorezaintza, ostalaritza, gidatzea eta garraioak, salgaien logistika eta horiek mugitzea, arotzeria eta teknika espezializatuak..

Nolabaiteko lotura dago prestakuntza-prozesuaren eta gizarteratze-enpresan lan egitearen eta prozesu horretan parte hartu duten pertsonak, gerora, ohiko merkatuan gizarteratzearen eta laneratzearen artean.




## IV. Ekonomiari buruzko informazioa

Ondasunak hornitzearen eta zerbitzuak eskaintzearen bidez, merkatuan lehiatzen dira. Horrez gain, pertsonak gizarteratzen eta laneratzen dituzte gizarteratze-entresek. Jarraian, datu ekonomiko agregatu orokorrak aztertuko ditugu.

### Jarduera-sektoreen araberako banaketa

34 gizarteratze-entresa (%82,9) zerbitzuen sektorean aritzen dira; eraikuntzaren sektorean, aldiz, 4 gizarteratze-entresa aritzen dira (%9,8); eta industrian, 3 (%7,3).

Jarduera-sektoreak	Enpresen kopurua, sektoreka	GE % Sektoreka
Industria	3	7,3
Eraikuntza	4	9,8
Zerbitzuak	34	82,9
Guztira	41	100,00



Jarduera-sektoreak	Sektoreko enpresa kopurua	Ehunekoak
Industria	13.936	7,65
Eraikuntza	32.632	17,90
Zerbitzuak	135.716	74,45
Guztira	182.284	100,00

Euskadiko enpresa-jardueren sektoreak<sup>18</sup>. Sektoreei dagokienez, Euskadiko enpresa guztien antzera banatzen dira gizarteratze-enpresak ere. Gizarteratze-enpresarik gutxien (%7,65) industriaren sektorekoak dira; gehienak, aldiz, zerbitzuen sektorekoak (%74,45).

### Askotariko jarduerak


Era askotako jarduerak gauzaten dituzte gizarteratze-enpresek. 8 enpresak (%18,6) ostalaritza- eta catering-zerbitzuak eskaintzen dituzte. 5 gizarteratze-enpresa (%11,6) jantziak, etxe-tresna elektrikoak eta makinak biltzeaz, birziklatzeaz eta berrerabiltzeaz arduratzen dira; eta beste 5 enpresak (%11,6k) lorezaintza-zerbitzuak eskaintzen dituzte.

Gizarteratze-enpresek era askotako jarduerak gauzaten dituzte. Horrek adierazten du, batetik, gizarteratze-enpresak dibertsifikatzen ari direla; bestetik, dibertsifikazio-prozesu horrek hainbat aukera eskaintzen dituela epe ertainean; eta, azkenik, eskaintzen dituzten zerbitzuak eta produktuak ugari behar izan dituztela, gizarteratze-enpresak merkatuan lehiakorrak izateko.

Gero eta handiagoa den dibertsifikazio horri denboran eutsiz gero, erakundeek, enpresek eta elkarteek gero eta produktu eta zerbitzu gehiago izango dituzte aukeran.

<sup>18</sup> Etxe honetan egin dugu taula hori, EUSTATen datuak harturik: Enpresak eta beren enplegua EAEn, jarduera-atalaren (A21) eta egoitza sozialaren arabera. 2009-I-1. 2010eko martxoa.

## Jarduera ekonomikoak



## Gizarteratze-enpresak: gizarte-berrikuntza eta tokiko garapena

Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoaren (CEPAL)<sup>19</sup> arabera, gizarte-berrikuntzako egitasmoak prozesu tradizionalak edota eginbehar berriak gauzatzeko erabiltzen diren prozesuak eta jardunak dira. Zeregin horretan, gizarteak eta pertsona onuradunek hartzen dute parte. Horregatik, beren garapenaren eragile bihurtzen dira azken horiek. Egitasmo horiek, ondorio frogagarriak edukitzeaz gain, programa edo proiektuen erara antolatzen dira, eta gizarte zibileko, Estatuko nahiz herritarren erakunde sozialekin batera koordinatzen dira. Berrikuntza horietako gehienak ez dira ikusten edo hautematen errazak. Zenbaitetan, protagonista eta eragile direnek ezin dituzte antze-man ere.

Alde horretatik, eta Morales Gutiérrezen<sup>20</sup> definizioa geure eginez, gizarteratze- eta laneratze-enpresak berritzaileak direla eta gizartean dihardutela esan dezakegu, ondoko ezaugarri hauek baitaizkate:

Ezaugarri berritzaileak:

- *Originalak dira*, ez konplexutasun teknikoaren aldetik, baizik eta arazoak konpontzeko gaitasunagatik.
- *Ezin ukituzko baliabideak erabiltzen dituzte*, zenbait gizarte-talderen ongizatea originaltasunez hobetzen duten egitasmoak, artean.
- *Imitagarriak, eskualdagarriak eta erreproduzigarriak dira*. Gizarte-berrikuntzek, berez, zabaltzeko joera dute. Hortaz, berrikuntza irekiak dira.

Ezaugarri sozialak:

- *Gizarte-arazoak ebaztea dute xede*: eragin zuzena (eragin ekonomiko zuzena edo zeharkakoa).
- *Gizarte- eta harremanetarako kapital handia*. Kooperaziorako kapital sozial nahikoa egon dadila eskatzen du gizarte-berrikuntzak. Kapital sozial nahikoa izan behar da, batetik, txikizkako kooperazioaren eta egitasmoan parte hartzen duen talde-ekintzaren alorrean, baita erakunde publikoen eta handizka antolatutako herritarren arteko kooperazioan ere.


<sup>19</sup> Rodríguez Herrera, A eta Alvarado Ugarte, H. (2008): Claves de la innovación social en América Latina y el Caribe. CEPAL, Txileko Santiago. 2008ko azaroa. 23. or.

<sup>20</sup> Morales Gutiérrez, A.C. (2009): Innovación social: un ámbito de interés para los servicios sociales. Zerbitzuan aldizkaria, 45. zk. 2009ko ekaina.

Azkenik, Gutiérrez Moralesen arabera, gizarte-berrikuntzaren hiru modalitate nagusi daude: tokiko gaitasuna eratzea; produktuak, baliabideak eta prozesuak berriz elkartzean dautzan berrikuntzak zabaltzea, tokian tokiko zehaztasunetara ondo egokituko diren formulak lortzeko asmoz; eta, azkenik, mugimendu bat sortzea baztertutako gizarte-taldeek hitza izan dezaten.

Gizarte-bazterketa pairatzen duten zenbait pertsona-talde gizarteratzeko tresna dira gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak. Azken horiek, prestakuntzaren eta lanaren bidez, egiteko aukera ematen diete baztertutako pertsonari, erakundeekin eta gizarte-elkarteekin elkarlanean. Horrez gain, gizar-tearen eta ekonomiaren alorreko lan bikoitza egiten dute, eta dagokien komunitatea garatzen dute gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek.

## Diru-sarrereren iturriak




Diru-sarrereren iturriak	%	
Diru-laguntza publikoak	27,4	6.478.144,00
Diru-laguntza pribatuak	0,7	153.529
Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk	0,5	118.562
Salmentak	71,4	16.844.254,00
Guztira	100	23.594.489,00

Euskadiko gizarteratze-enpresen finantziazioaren %71,4 salmentatik eta zerbitzuak eskaintzetik dator. Horrek adierazten du haien autonomia oso handia dela, eta enpresa txiki eta ertain diren aldetik, merkatuan haien tokia dutela. 41 gizarteratze-enpresek 16.844.254 euroko diru-sarrera izan dute, guztira, salmenten eta zerbitzuak eskaintzearen bidez.

2009an, 23.594.489,00 euroko diru-sarrera izan dute guztira gizarteratze-enpresek.

## Urteko fakturazioaren bolumena



Guztira, 16.844.254 euro fakturatu dituzte aztergai ditugun 41 gizarteratze-enpresek 2009an, hau da, 2008an baino %10,9 gehiago.

Estatuan, 54.245.172 euro fakturatu dituzte guztira gizarteratze-enpresek. Estatuko fakturazioaren %31,05 da Euskadiren fakturazio osoa.<sup>21</sup>

Gizateako gizarteratze enpresek, batez beste, 410.835,46 euro fakturatu dituzte. Fakturazioaren batez besteko horren gainetik 18 enpresa daude; eta beste 23, berriz, haren azpitik.

<sup>21</sup> Guztizko fakturazioa da hori, FAEDELren 2009ko Gizarte Memoriaren Txostenean parte hartu zuten espainiar Estatuko 136 gizarteratze-enpresena.

Gizateako gizarteratze-enpresek 410.835,46 euro fakturatu dituzte batez beste 2009an. Gizarteratze-enpresen fakturazioaren Estatuko batez bestekoa 398.928 eurokoa da. Beraz, Gizateako gizarteratze-enpresen batez besteko fakturazioa Estatukoa baino handiagoa da.<sup>22</sup> 2008an, aldiz, Gizateako gizarteratze-enpresen batez besteko fakturazioa 370.419,56 eurokoa izan zen.

## Diru-laguntza publikoak eta pribatuak

Diru-sarreraren %27,5 (hots, 6.433.066 euro) diru-laguntza publikoetatik dator. Diru-sarreraren %0,7 (153.529 euro) diru-laguntza pribatuetatik dator.

Gizarteratze-enpresek diru-laguntza publiko hauek jasotzen dituzte:

- ⊕ Gizarteratze-enplegurako diru-laguntza publikoak, gizarteratze-enpresentzat.
- ⊕ Laguntzako teknikarietarako diru-laguntza publikoak, gizarteratze-enpresentzat.
- ⊕ Inbertsioetarako diru-laguntza publikoak, gizarteratze-enpresentzat.
- ⊕ Laguntza teknikorako laguntza-publikoak, gizarteratze-enpresentzat.
- ⊕ Gizarteratze-enpresentzako diru-laguntza publikoak, beste kontzeptu batzuegatikoak.
- ⊕ Beste diru-laguntza publiko batzuk.

Gauzatutako azterketaren arabera, diru-laguntza publikoen %70 baino gehiago gizarteratzeko lanpostuak sortzeko erabiltzen dira. Bestetik, motaren arabera banatzen baditugu diru-laguntzak, horien %96,65 gizarteratze-enpresentzako diru-laguntza publikoak dira; eta gainerako %3,35, beste era bateko laguntza-publikoak.

Gizarteratze-enpresentzako diru-laguntza publikoak guztira 2009	6.261.048,00 €	%96,65
Beste diru-laguntza publiko batzuk 2009	217.096,00 €	%3,35
Diru-laguntza publikoak guztira 2009	6.478.144,00 €	%100,00

<sup>22</sup> FAEDEI, 2009ko datuen aurrerapen-txostena. 2010eko iraila.

## Gizarteratze-enpresentzako diru-laguntza publikoak<sup>23</sup>

182/2008 Dekretuaren helburua da, gizarte bazterkeriaren aurkako eta gizarteratu eta laneratzeko politika publikoen esparruan, laneratzeko enpresen erregimen juridikoa arautzea, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratu eta laneratzeko agente aktibo gisa.

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan, hauexek izango dira gizarteratzen eta laneratzeko laguntzeko tresnak:

- ④ Gizarteratzeko hitzarmena. Gizarteratzeko nahiz laneratzeko behar diren era bateko eta besteko ekintzen multzoa antolatzeko oinarrizko tresna izango da, laneratzeko formazioari eta prestaerari garrantzi berezia emanda ekintza horietan.
- ④ Esku hartzeko neurri espezifikoak. Gizarte-babeseko hainbat alorretako programa, zerbitzu edo zentroak izan daitezke, bereziki gizarte-zerbitzuek, enplegu-zerbitzuek, osasun-zerbitzuek eta etxebizitza-zerbitzuek antolatutakoak, eta, konbinatuta, gizarteratzeko hitzarmenean aplikatu daitezkeenak.

Beraz, gizarteratze-enpresak gizarteratzea bideratzeko tresna diren aldetik, Eusko Jaurlaritzak haientzat xedatutako diru-laguntzek ondoko helburu hauek izango dituzte:

1. Gizarteratze-enpresen sorrera sustatzea, hau da, merkatu-azterlanak egitea, enpresa horiek sortzea bideragarria den ala ez jakiteko.
2. Gizarteratze-enpresen iraunkortasuna babestea hau da, gizarteratze-lanpostuak sortzera edo mantentzera bideratutako aktibo finkoetan egindako inbertsioak; eta produkzioko nahiz gizarteratzeko laguntza-teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea. Diru-laguntzak, baita ere, laguntza teknikorako eta prestakuntzarako ematen dira.

Ondoko diru-laguntza hauen onuradun izan daitezke gizarteratze-enpresak:

- a. Gizarteratze-enpresak sortzeko diru-laguntzak.
- b. Gizarteratze-enpresen iraunkortasuna bermatzeko diru-laguntzak. Besteak beste:
  - ④ Gizarteratze-prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzera edo mantentzera bideratutako aktibo finkoetan inbertsioak egiteko diru-laguntzak.

---

<sup>23</sup> 182/2008 Dekretua, azaroaren 11koa, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duena, eta horietan sartzeko prozedura nahiz horien erregistroa ezartzen dituen.

- ⊕ Gizareratze-prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzeko eta mantentzeko diru-laguntzak.
- ⊕ Produktzioan laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortzeko eta mantentzeko diru-laguntzak.
- ⊕ Merkatu-azterlanak egiteko, merkatu berriak irekitzeko, enpresa-jarduera berri bideratzeko, eta kontabilitate-auditoretzak nahiz kudeaketa-auditoretzak egiteko laguntza teknikoarengatiko diru-laguntzak.
- ⊕ Prestakuntzarako diru-laguntzak
- ⊕ Ikerketa eta garapenerako diru-laguntzak.
- ⊕ Gizareratze-enpresetatik datozen langileentzako diru-laguntzak, langile autonomo gisa edo gizarte-ekonomiako formuletan aritu daitezzen.

2003. urtetik, 40,1 milioi euro eman ditu Eusko Jaurlaritzak gizareratze-enpresentzako diru-laguntzatan. Bi mila pertsona inguru izan dira diru-laguntza horien onuradun<sup>24</sup>.


Urtea	Aurrekontua (milioi)	Erakundeak	Pertsona onuradunak
2003	1.800	9	43
2004	3.040	21	90
2005	5.170	32	212
2006	7.940	40	321
2007	7.790	48	423
2008	7.130	45	450
2009	7.235	40	447

EAE, hain zuzen ere, gizareratze-enpresak garatzeko laguntza-publikorik gehien jasotzen duen erkidegoetako bat da. Horren arrazoia da, besteak beste, beste erkidegoetan baino lehenago sortu zirela EAEko gizareratze-enpresak.

<sup>24</sup> Gizareratuz Gizarte Gaiet Buruzko Dokumentazio Aldizkariaren 3. zk. "El apoyo a las empresas de inserción, una estrategia de activación", 2010eko apirila, 9. or.

## Bezero-zorroaren osaera

Gizarteratze-enpresak lehia aritzen dira merkatuan, eta gainerako enpresen baldintza berberetan eskaintzen dituzte beraien zerbitzu nahiz produktuak. Gizarteratze-enpresen bezeroen %83 enpresa eta erakunde pribatuak nahiz partikularrak dira; gainerako %17 Herri Administrazioak eta sektore publikoak osatzen dute.



Sektore pribatuari dagokionez (%83), enpresa pribatuak, partikularrak eta hirugarren sektoreko erakundeak dira gehienak. Azken horiek, bidenabar, gizarte-erakundeen arteko elkarlanaren erakusle onak direla esan dezakegu.

Herri Administrazioak eta Sektore Publikoa gizarteratze-enpresen bezero zorroaren %17 besterik ez dira. Aipatu berri ditugun erakunde horiek, esaterako, kontratazioak, merkatu-erreserbak eta gizarte-klausulen bidez dira gizarte-erakundeen bezero.

*Haien lurraldean gizarte-klausularik ote zegoen* galdetuta, gizarte-enpresen %36,5ek **BAIETZ** erantzun zuen; gehienek, aldiz, %63,5ek, **EZETZ esan zuten**. Ezezkoa nagusi izateak alor hori landu beharra dagoela adieraz dezake. Sektore publikoen eta pribatuen arteko elkarlanak eskaintzen dituen aukerak ezagutu behar lituzkete gizarteratze-enpresek. Erakunde publikoek, beren aldetik, politikak landu beharko lituzkete.

Aztertutako informazioaren arabera, tokiko herri-administrazioek 4 gizarteratze-enpresa besterik ez dituzte kontratatu –kontratazio-prozesuan gizarte-klausulak sartzearen bidez–.

Gaur egun, kontratazio-agirietan gizarte-klausulak erabilia, Erosketa Publiko Sozialaren bidez ondasunak eta zerbitzuak eskaini ditzakete gizarteratze-enpresek.

### Gizarte-klausulak eta Erosketa soziala

Erosketa soziala deritzo kontratazio-publikoaren prozesu nahiz faseetan gizarterearen alorreko zenbait aspektu sartzeari, hala nola: enplegu-kalitatea, genero ikuspegia, ezinduak kontratatzea, gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan diren pertsonak kontratatzea, edota gizarteratze eta laneratze enpresak edota Enplegu Zentro Bereziak (EZB) azpikontratatea.

- ↻ Merkatu-erreserba: indarreko legeen arabera, gizarteratze- eta laneratze-enpresei merkatuaren zati bat erreserba diezaieke herri administrazioak kontratu txikien eta prozedura negoziatuen bidez.
- ↻ Gizarte-klausulak: herri kontratazioko prozeduretan gizarte politikaren zenbait aspektu sartzean datza.

Gizarte-bazterketa pairatzen duten pertsonentzako lanpostuak sortzeko balio dute bi tresna horiek, eta gizarte-erantzukizuna egikaritzea ahalbidetzen diete herri administrazioei.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), "Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte-irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuk barne hartzea erabaki zen" 2008ko ekainean, 6/2008<sup>25</sup> Ebazpenaren bidez. Neurri hori onartu egin bada ere, egundaino ez da aplikatu, erosketa publikoaren prozesuetan.

<sup>25</sup> 2008ko ekainaren 19ko EHAA. 6/2008 Ebazpena.

## Azterketa ekonomikoa

41 gizarteratze-enpresetako 22k emaitza positiboak izan dituzte 2009ko ekitaldia amaitzean; gainerako 19ek, aldiz, emaitza negatiboekin amaitu dute urtea.

Eusko Jaurlaritzaren eta Gizatearen arteko hitzarmenaren arabera, sortutako etekin guztiak<sup>26</sup> berrinbertitu behar dituzte Euskadiko gizarteratze enpresek. 44/2007 Legea betez, beste autonomia erkidego batzuetan, sortutako irabazien %20 ere bana dezakete gizarteratze-enpresek.

Galera eta irabazien kontua	
Ustiapeneko beste diru-sarrerak	23.594.489 €
Lehengaien eta salgaien kontsumoa	5.195.361 €
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	4.249.157 €
<b>Balio Erantsi Gordina</b>	<b>14.149.971 €</b>
Aparteko emaitzak	21.195 €
<b>Sortutako Balio Erantsi Gordina (BEG)</b>	<b>14.171.166 €</b>

Balio Erantsi Gordina magnitude bat da. Makroekonomian, magnitude horrek adierazten du herrialde bateko enpresa guztien balio erantsia –hots, produkzioa kendu arteko kontsumoak– zein den eta, hortik, Barne Produktu Gordina (BPG) neur daiteke. Laburbilduz, gizarteratze-enpresek herrialdeko ekonomia produktiboari egiten dioten ekarpena adierazten du Balio Erantsi Gordinak. Txosten honetan aztergai ditugun 41 gizarteratze-enpresek 14.171.166 euroko Balio Erantsi Gordina sortu dute.

<sup>26</sup> 10. artikulua.- Kalifikazioaren ondoriozko betebeharrak: (...) k) Urte bakoitzean lortutako soberakin baliagarriak aplikatzea produkzio-egituren hobekuntzan edo zabalpenean, edo gizarteratzearekin eta laneratzearekin lotutako jardueren sustapenera; eta ez dira inolaz ere irabaziak banatuko. 182/2008 DEKRETUA, azaroaren 11koa, laneratzeako enpresen kalifikazioa arautzen duena, horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen dituena.

Balio Erantsi Gordina aztertuz gero, langileen gastuak –egiturazko nahiz gizarteratzekoak–, finantza-erakundeentzako interesak eta amortizazioak ordaindu direla ikusiko dugu:

Sortutako Balio Erantsi Gordina (BEG)	14.171.166 €
Langileen gastuak	10.135.566 €
Finantza-emaizak	22.361 €
Amortizazioak	925.825 €
Zerga Aurreko Mozkina (ZAM)	3.132.136 €
Amortizazioak	925.825 €
Kutxako Fluxu edo Cash Flow-a	4.057.961 €

Ekonomiaren alorrean, ekitaldiko edo epeko amortizazioak eta mozkin garbia gehituz lortzen den kopurua da Cash Flow-a. Hau da, zuzendutako kontabilitateko emaitza da. "Sortutako baliabidetzat" hartzen da (Cash Flow generation). Haren bidez emaitza aztertuz gero, enpresak mozkinak sortzeko duen gaitasuna neur daiteke.



## V. Gizarteratze-enpresek Herri Administrazioei dirua itzultzea

Gizarteratze-enpresek gizarte bazterketa pairatzen duten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen dituzte. Eginkizun hori gauzatu ahal izateko, diru-laguntza zehatz batzuk jasotzen dituzte. Atal honetan, beraz, diru-laguntza horien zati bat nola itzultzen duten aztertuko dugu. Horrez gain, gizarteratzeko lanpostu baten benetako balioa zein den kalkulatuko dugu.

Gizateako enpresen ekarpenei buruzko daturik adierazgarriak	
Langileak guztira (2009. urteko batez bestekoa)	606 lanpostu
2009an gizarteratze-enpresetan aritu diren gizarteratzeko pertsona guztien kopurua	611 pertsona
Gizarteratzeko langileak (2009. urteko batez bestekoa)	379 pertsona
Gizarteratze-lanpostuak, lanaldi osokoetan neurturik	365 lanpostu
Fakturazioa	16.844.254 €
Ustiatze diru-sarreretatik diru-laguntza publikoen ehunekoa	%27,5
Enpresek soldatetan gastatutakoa	7.858.870 €
Enpresek Gizarte Segurantzari gastatutakoa	2.349.362 €
Sortutako Balio Erantsi Gordina	14.171.166 €

## Herri Administrazioei itzultzea

Honela kalkulatu dugu Herri Administrazioei itzultitako kopurua:

Lehenik, gizarteratzeko langile baten urteko soldata gordina 15.129 euroan finkatu da.<sup>27</sup>

Ondoren, zenbateko hori oinarri harturik, ondoko kontzeptu hauek aplikatu dira:

- ☞ Gizarte Segurantza: urteko soldata gordinaren %32 aplikatu dugu.
- ☞ Gertakizun arruntak, langabezia, eta abar: %6,4 aplikatu dugu.
- ☞ BEZ: %16 aplikatu diogu 2009ko fakturazio osoari.

Gizarteratze-enpresek gizarteratze-lanpostu bakoitzeko Herri Administrazioei itzuli dieten zenbatekoa	
Enpresako gizarte-segurantza	4.856 €
Gertakizun arruntak (%6,4)	968 €
BEZ (Fakturazioaren %16)	4.447 €
Guztira	10.272 €

Horrenbestez, gizarteratze-postu bakoitzeko itzulera 10.272 eurokoa da.

EAEn, guztira, ondoko zenbateko hau itzuli dute gizarteratze-enpresek:

Itzultitakoa guztira	3.749.129 €
Gizarteratze-lanpostuak	365
Lanpostu bakoitzeko itzultitakoa	10.272 €

Gizarte Segurantzaren, gertakizun arrunten eta BEZaren bidez, 10.272 euro itzuli zaizkie Herri Administrazioei lanpostu bakoitzeko.

<sup>27</sup> Gizarteratze-langile baten soldataren batez besteko kostua ezin da erreferentzia osotzat hartu, ekoizpen-sektoreko hitzarmen kolektiboen arabera ezartzen baitira soldatak.

## Diru-laguntzen eta itzulitako zenbatekoaren arteko aldea. Gizarteratze-lanpostu baten benetako kostua

Diru-laguntzen eta itzulitako zenbatekoaren arteko aldea.  
Gizarteratze-lanpostu baten benetako kostua

Gizarteratze-enpresarentzako diru-laguntza	17.154 €
Itzulitako kopurua	10.272 €
Benetako kostua	6.882 €

Gure kalkuluaren arabera, gizarteratze-langile baten benetako kostua 6.882 euro dira.

## Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duen pertsona baten kostua eta hura gizarteratze-enpresa bateko kostuarekin alderatzea

Kalkulu hori egiteko, ondoko bi gai hauek hartu ditugu kontuan:

1. Pertsona batek (batez beste) gutxieneko errentaren bidez jasotzen duen kopurua.
2. Beste laguntza sozialetatik pertsona horrek 3.000 euro jasotzen dituela kalkulatu dugu.

Gizarte-laguntzen kostua kalkulatzeko, ondoko gai hauek izan ditugu kontuan:

- ⊕ Bartzelonako Sindica de Greuges erakundeak La Caixaekin eta Pompeu Fabra Unibertsitatearekin elkarlanean egindako azterlanean<sup>28</sup> adierazitakoa:
  - Banakako gizarte-arretako zerbitzuan hartutako pertsona bakoitzaren urteko batez besteko aurrekontua = 243 euro.
  - Arreta psikologikoa = 854 euro.
  - Gizarte- eta hezkuntza-ekintza = 287 euro
- ⊕ Lanerako prestakuntza programa bat egiten ari den pertsona baten kostua: 2.000 euro urteko.

<sup>28</sup> Sarasa, S. eta Sales, A. (2009): Itinerarios y factores de exclusión social. Bartzelonako Udala, Bartzelonako Sindico de Greuges, La Caixa Gizarte Ekintza eta Pompeu Fabra Unibertsitatea.

Datu horiek oinarri harturik, autonomia erkidegoak ondoko hau ordaindu behar du gutxieneko errenta edo errenta horren antzerakoa jasotzen duen pertsona bakoitzarengatik:

Euskadi	
Sarrerak Bermatzeko Errenta	8.400 €
Gizarte-laguntzak	3.000 €
Guztira	11.400 €

Orain, gizarteratze-enpresa batean ari den pertsona bakoitzagatik eta Diru-sarreak Bermatzeko Errenta jasotzen ari den pertsona bakoitzagatik Administrazioak zenbat ordaindu behar duen badakigula, datu horiek aldera ditzakegu:

Euskadi	
Gizarteratze-enpresako kostua	6.882 €
DBE eta gizarte-laguntzen kostua	11.400 €
Aldea	4.518 €

Bataren eta bestearen artean 4.518 euroko aldea dago, gutxi gorabehera.

# Ondorioak

## Gizarteratzeko eta laneratzeko dispositiboak dira gizarteratze-enpresak

Gizarteratze-enpresek erakutsi dute –aztergai dugun urte horretan, bereziki– gizarteratze-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko tresna baliagarriak direla. Gizarteratze-enpresetan, batez beste, 379 pertsonak egin dute lan. Horien %37,7 gizonezkoak ziren eta %62,3 emakumezkoak. Hala ere, azpimarratu beharra dago gizarteratze-enpresetan 611 langile aritu direla guztira.

Gizarteratze-enpresak finkatzen hari diren seinale da, baita ere, enpresa horiek gero eta toki handiagoa dutela gizarteratze- eta elkartasun-ekonomian. Bestalde, espainiar Estatuan dauden 193<sup>29</sup> gizarteratze-enpresetatik 47 (%24,2) EAEn daude; eta azken horietako 41 (%21,1) Gizarteako bazkide dira.

## Gizarteratze-enpresak tresna eraginkorrak dira

2009an, gizarteratze-prozesua amaitu zutenen %75ek (hots, 217 lagunek) lana aurkitu zuen. Batez besteko laneratzearen ehuneko hori dela-eta, gizarteratze-enpresak denik eta tresnarik eraginkorrenetako bat direla esan genezake, batez ere, lanerako prestakuntza-programekin eta enplegu eta prestakuntzarako programa mistoekin alderatuta –azken horiek %35-55eko eta %50-75eko laneratzeari baitute, hurrenez hurren–.

## Gizarteratze enpresak tresna arrakastatsuak dira

Hainbat kontzepturen bidez (enpresako Gizarte Segurantzaren, gertakizun arruntak eta BEZa), gizarteratzeko plaza bakoitzeko 10.272 euro itzultzen dizkiete Herri Administrazioei. Laguntza publikoetan gizarteratze-enpresek, guztira, 17.154 euro ja-

<sup>29</sup> Gizarte Txostena 2009, FAEDEI.

sotzen dituztenez, gizarteratze-plaza bakoitzak 6.882 euroko kostu erreala du. Bestetik, gizarte-bazterketa pairatzen duen pertsona bakoitzak 11.400 euro inguruko kostua du gizarte-laguntzetan eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan.

Nahiz eta beren lana egiteko diru-laguntza publikoak jaso, gizarteratze-enpresek fluxu ekonomikoa sortzen dute, eta, haiei esker, herri erakundeek dirua aurrezten dute gizarteratze-pertsona bakoitzeko (gizarte kostu txikiagoa baitute zerbitzutan nahiz errenta pasiboetan). Onura horiek guztiek gizarteratze-enpresak sozialki eta ekonomikoki errentagarriak direla frogatzen dute.

## Gizarteratze-enpresak baliabide iraunkorrak dira

Beraien funtzionamendu arauen arabera funtzionatzen dute gizarteratze-enpresek merkatuan. Gizarteratze-enpresek, gainerako enpresek ez bezala, pertsonak gizarteratzen eta laneratzen dituzte. Horixe da gizarteratze-enpresen bereizgarria. Krisialdian egonda ere, lan- eta produkzio-ingurunera egokitzeko gai direla erakutsi dute gizarteratze-enpresek 2009an.

Produktuak saltzetik eta zerbitzuak eskaintzetik izan dute gizarteratze-enpresek 2009ko diru-sarreraren %71,4. Haien diru-sarreraren %27,5, ordea, diru-laguntza publikoetatik dator. Beraz, gizarte-gastu izateaz gain, diru-laguntza publikoak gizarte-inbertsio ere badira.

Gizarteratze-enpresek, guztira, 2008an baino %7,6<sup>30</sup> langile gehiago izan dituzte 2009an, eta 2008an baino %10,9<sup>31</sup> gehiago fakturatu dute guztira.

Gizarteratze-enpresen bezeroei dagokienez, horien %83 bezero pribatuak dira, eta %13, berriz, erakunde publikoak.

## Gizarte ekintza

Bestalde, gizarteratze-enpresen sustatzaile gehienek gizarte ekintza dute sorburu, hau da, erakunde sustatzaileen %92 hirugarren sektoreko irabazi asmorik gabeko gizarte esku-hartzeko erakundeak dira –elkarteak, fundazioak eta gizarte-ekintzako kooperatibak.

<sup>30</sup> Gizarteratze-enpresetako langileen bilakaera, 2008-2009.

<sup>31</sup> Gizarteratze-enpresen fakturazio osoaren bilakaera 2008-2009.

## Sustatzen jarraitu behar dugun tresnak dira

2009ko abendura bitartean, 31.283 pertsonak jaso zuten, guztira, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta. Horietatik, 226 (hots, %0,72) gizarteratze-enpresa batean aritu dira lanean gerora. Beraz, lana suspertzeko tresna diren aldetik, gizarteratze-entresak sustatzen jarraitu behar direla uste dugu.

Azkenik, gizarteratze-enpresen kokalekuari dagokionez, alde handia dago eskualdeen artean. Horrela, hiru lurralde historikoetatik gizarteratze-enpresa gutxien dituen Gipuzkoa da (5 enpresa, hau da, gizarteratze-enpresen %12). Bizkaian daude gizarteratze-enpresa gehien (%68, hots, 28 gizarteratze-enpresa). Araban, aldiz, 8 daude (gizarteratze-enpresen %20). Beraz, Araba eta Gipuzkoan sustatu beharko lirateke, nagusiki, gizarteratze-entresak.

## Epe ertainerako zenbait erronka

Gizarteratze-enpresek hainbat indargune dituzte, besteak beste, –krisialdi ekonomikoaren garaian, batez ere– pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko tresna dira. Euskadik, bere aldetik, orain baino gehiago sustatu behar ditu enpresa horiek.

Horrez gain, ondoko hobekuntza hauek egin behar liratekeela deritzogu:

- ↻ Gizarteratze-enpresen eta gizarteratze-lanpostuen kopurua handitzea, bai eta horien banaketa geografikoa orekatzea ere.
- ↻ Gizarteratze-enpresek jasotzen dituzten diru-laguntza publikoak eguneratzea, azken urteotan ez baitira igo. Bereziki, laguntza-teknikarientarako laguntzak eguneratu beharko lirateke, neurri horrek hobetuko bailuke laguntza-langileen eta gizarteratze-langileen arteko ratioa.
- ↻ Gizarteratze-enpresentzako merkatu publikoak babestea, eta, sektore publikoko kontratuei buruz Estatuan nahiz erkidegoan indarrean diren legeekin bat etorritz, gizarte-klausulak ezartzea kontratazio publikoaren prozesuetan.
- ↻ Gizarteratze-enpresei egokitutako finantziario-ildoak lortzeko erraztasunak ematea, bai eta entresak sortzeko eta garatzeko ere –horiek denboran iraunkor izan daitezken–.

- ↻ Ekoitziak eta zerbitzuak orain baino ugariagoak izan daitezela sustatu, batetik, iraunkortasun ekonomikoa handitzeko, eta, bestetik, merkatu arruntean laneratzeko aukerak handitzeko.
- ↻ Gizarte-merkatuak sustatzeko asmoz, enpresen arteko lankidetzak eta gizarteratze-enpresen arteko merkataritza-trukeak sustatzea.
- ↻ Gizarteratze enpresak ikusgai bihurtzea gizartearen eta, bereziki, eragile sozioekonomikoen begietara.

2009an, azkenik, krisialdi ekonomiko minean izan dira enpresak. Hala ere, baieztatu eta nabarmendu dezakegu gizarteratze-enpresek egiteko ekonomiko eta soziala bete dutela, eta, egun ere, hura betetzen ari direla. Iraunkortasun ekonomikoaren erronka beren gain hartuz, gizarteratze-enpresek enplegua sortu dute, eta, horrez gain, haien egiteko soziala bete, hau da: gizarte-bazterketa jasaten duten eta, hortaz, egunez egun laguntzaren beharra duten gizonezkoak eta emakumezkoak laneratzeko.